



**Fantasiatzko eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

www.nekrogune.com

NEKROGUNE, Gugan enpresaren ekimena da, Donostia Kulturaren babesean Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astearen izpiritua Donostiako kaleetan barrena indartzeko.

Halaber, hurrengo edizioetan jarraipena izan dezaten helburuarekin sare sozialak erabiliko dira, eduki berriak sortuz eta kudeatuz jendearen parte-hartzea areagotzeko.

Aurtengo ikuskizunak honakoak izango dira:

POTEO OF THE DEAD

Donostian ospatu den lehen *Zombie Walk* ofizialaren arrakastaren ondoren, bigarren edizioa abian da eta berriro ere, munduko beste *Zombie Walk*ek ez duten bereizgarriarekin: poteoa euskaldun erara Donostiako Alde Zaharreko kaleetan zehar.

Donostian ospatu den lehen *Zombie Walk* ofiziala *Euzkal Okela* pelikula-egitasmoak bultzatu zuen. Lankidetzeta eta *crowdfunding*an oinarritzen den proiektu berritzaile hau Facebook sarean sortu zen “queremos hacer la primera película de zombis de Euskadi” izenpean eta gaur egun, bere izurria hedatzen jarraitzen du.

Aurten ere, makillatzeko standa jarriko dugu Boulevardeko Kioskoan eta **Grupo Estilista Reyes Católicos**-ek kudeatuko du.

azaroak 4

Boulevardean makillaje-standaren irekiera: 16:30

Poteo of the Dead: 19:00

NEKROGUNE FASHION WEEK

Hainbat artista donostiar gaztek diseinaturiko eta izu eta fantasiatzko generotan inspiratutako Kamiseta-erakusketa. Euren talentu-sortzaile ikaragarria ezagutzera emateko egitasmoa.

Euren promozioa bikoitza izango da. Alde batetik, diseinatzaile bakoitza sare sozialen bitartez sustatuko da. Bestalde, diseinuen erakusketa fisikoa egingo da: diseinatzaile bakoitzaren kamiseta bakarra imprimatuko da, eta kamiseta horiek guztiak Astearekin zerikusia duten tokietan erakutsiko dira. Kamiseta hauek, Aste bukaeran zozkatuko dira.

Aurten, eta oraingoz, erakustaldian parte-hartuko dute: **Muted Clothing Company, Viva la Vida, Mantequilla Deliciosa, Amor de Rata y Sarcasmoon.**

urriak 29 – azaroak 4

eta gainontzean artista bakoitzaren sare sozialetan



**Fantasiako eta Beldurrezko
Zinemaren Astea**
**Semana de Cine
Fantástico y de Terror**
**Horror and Fantasy
Film Festival**

MASTER OF DOOM

Nork daki beldurrezko zinemari buruz gehien? Horixe da jakin nahi duguna eta horretarako lehiaketa bat egingo dugu. Irabazleak **Izuaren Zetroa** lortuko du eta bere jabetza izango du hurrengo urtera arte. Bi fasetan garatuko da: sare sozialen bitartez kudeatuko den klasifikazio fasea, eta Final Handia, zuzenean egingo dena **Fnac**-en.

Hiru proba mota egingo dizkiegu lehiakideei:

- Test moduko galderak
- Ikus-zorroztasun proba: sekuentzien edo fotogramen identifikazioa
- Soinu-zorroztasun proba: sekuentzien soinu edo soinu banden identifikazioa

lehenengo fasea sare sozialetan: www.nekrogune.com
amaiera zuzenean: **azaroak 2 / 19:30 / Fnac**

ZONBI GALDUAREN BILA

Familia guztiarentzako abentura, Aurinko Hezkuntza Elkartearekin elkarlanean antolatuta, Ginkana joko Donostiako alde zaharreko kaleetan zehar. Aztarnak jarraituz, enigmak argituz, zonbi galduak aurkitzeko gai izango ote dira geure abenturazale txikiak?

"Adi! Zonbi mordoa dabil ihesean hiriko kaleetan barrena... Dagoeneko ia guztiak harrapatu ditugu, guztiak 5 izan ezik. Donostiarren laguntza behar dugu, patrulla 'zonbiehiztariak' antolatuko baitira 5 zonbi horiek harrapatzeko... Xelebreak dira oso eta izugarri gustatzen zaie jolastea, horregatik, hainbat aztarna utzi dituzte bidean jarrai ditzagun... Ezagutu ez gaitzaten eta errazago harrapatzeko, eurak bezala mozorrotuko gara".

Bretxa Merkatagunean hasi eta amaituko da.

urriak 30 / 11:00 – 14:00 / Euskaraz / Parte hartze mugatua
aurrez izena emateko: **Aurinko Eskola** (615 00 82 35) eta **Gugan** (649 06 87 12)

+ INFORMAZIO GEHIAGO

Informazio gehiagorako, prentsa materiala edota NEKROGUNE-ren antolatzaileekin elkarrizketa bat zehazteko kontaktua:

Joxean Hernández Gómez / joxean@gugan.es / 649 06 87 12

<http://www.nekrogune.com>

Facebook: <http://www.facebook.com/nekrogune>

Twitter: @nekrogune

<http://www.gugan.es>